

Nafarroako Lehendakariaren komunikazio aholkularia

Nerea Martínez de Mandojana Valle

Gasteizen jaio zen 1979an. Ezkonduta dago eta bi seme ditu.

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean (1997-2001). Kazetari gisa lan egin du Cope Vitorian (1999), Radio Vitorian (2000) eta CNN+ Madrilen (2001), eta albistegietako editore eta aurkezle lanak egin ditu Canal 6 Navarra telebistan bere sorreratik, 2002an, 2010era.

Komunikazio politikoaren arloan, Nafarroa Bai koalizioko prentsa arduradun izan zen 2010 eta 2012 artean, eta urte honetatik 2015era Geroa Bai koalizioko komunikazio arduradun izan da.

Era berean, ekitaldiak aurkezten lan egin du Nafarroan; hala nola Urteko Emakume Enpresari eta Zuzendariaren Sarien, Nafarroako Bikaintasunaren Sarien eta Reconcilia Zigiluen banaketa ekitaldiak.

2015eko abenduan Nafarroako Lehendakariaren komunikazio aholkulari izendatu dute.